

ESKORIATZAN EGINGO DIREN KULTUR PROGRAMA ETA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK (2026)

ATARIKOA

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen. Plan horretan lerro estrategikoak jasotzen dira, eta horietako lehena “kultur dinamizazioa” izeneko da.

Lerro horren A ekintza Eskoriatzan egingo diren kultur programa eta jardueretarako dirulaguntzak dira. Dirulaguntzaren helburua da Eskoriatzan urtean zehar programatzen diren kultur programa eta jardueri laguntza ekonomikoa ematea da, herrian kalitatezko kultur jarduerak eskaintzeko eta herritarren eta kultur elkarten arteko partaidetza eta lankidetzak sustatzeko.

1.- HELBURUA.

Oinarri hauen helburua da 2026an Eskoriatzan egingo diren kultur programak eta jarduerak antolatzeko norgehiagoka erregimenean emango diren dirulaguntzak arautzea.

Programa edota jarduera horiek Udaleko Kultura arloko helburuekin bat etorri beharko dira, hain zuzen ere, honako hauekin:

- Herriko kultur egiturari laguntza ematea, zabaldu eta sustatzea.
- Herritar orori zuzendutako sorkuntzara, ekoizpenera eta kultur hedapenera bideratutako programa eta jarduerak babestea, zabaltea eta sustatzea.
- Gazteen parte hartzea babestu, zabaldu eta sustatzea gazteentzako jarduerak antolatuz.
- Euskal historiaren eta kulturaren –bereziki, Eskoriatzakoarenak- balore propioak transmititzeko programak edota jarduerak babestu, zabaldu eta sustatzea.
- Euskaraz edo euskararen erabilera sustatzeko egindako programak edota jarduerak babestu, zabaldu eta sustatzea.

2.- DIRULAGUNTZARIK JASOKO EZ DUTEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK.

Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira ondorengo jarduerak:

- a) Beste udal deialdi bateko helburu diren edo izan daitezkeenak.



- b) Bakea, elkartasuna, genero berdintasuna, ingurumenarekiko errespetua, kulturartekotasuna... bezalako balore unibertsalen aurkakoak izan daitezkeenak.
- c) Jarduera itxiak edo eskaera egin duen taldeak berak bakarrik gozatzekoak, taldearen egoitzan egiten direlako edo jardueraren ordutegia ohiko lan orduetan izateagatik.
- d) Jarduera eremu sektoriala duten edo herri mailan garrantzirik ez duten jarduerak.
- e) Irabazi asmoa dutenak.

3.- ORGANISMO ESKUDUNA.

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

4.- ERREGIMEN JURIDIKOA.

Oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte dirulaguntza hauek eta baita onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra (GAO 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a).

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletín Oficiala: 2003-11-18)

Azken hori garatzeko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak.

5.- DIRU IZENDAPENA.

2026rako aurrekontu izendapena 2.500 eurokoa da, eta udal aurrekontuko dagokion aurrekontu partida, berriz, hau: 0400.481.334.00.01

6.- ONURADUNAK.

2026an Eskoriatzan kultur programa edo jarduera bat antolatze asmoa duen edozein pertsona fisiko edo juridikok eskatu ahal izango ditu deialdi honetako dirulaguntzak, betiere, Eskoriatzako Udalaren dirulaguntzak emateko araubidea arautzen duen ordenantza orokorraren 8. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baldin baditu:

6.1.- Elkarrekin.

a) Egoitza Eskoriatzan izatea. Salbuespen gisa, egoitza Eskoriatzatik kanpo dutenak parte hartu ahal izango dute, Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzordearen iritziz kultur izaera ezagun eta nabarmeneko lanak egin eta dirulaguntzaren helburu den jarduera Eskoriatzan egiten baldin badute.



b) Egiaztatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela dirulaguntza eskatzen duten egunean.

6.2.- Pertsona fisikoen taldeak:

Adinez nagusiak eta Eskoriatzan erroldatutakoak izan beharko dira.

Salbuespen gisa, Eskoriatzatik kanpo erroldatuta daudenek parte hartu ahal izango dute, Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzordearen iritziz kultur izaerako lanak egiten baldin badituzte eta dirulaguntzaren helburu den jarduera Eskoriatzan egin.

Pertsona fisikoen taldeak izanez gero, arduradunen izen-abizenak eta NANak adierazi beharko dira.

Kasu horretan, berariaz jaso beharko dira, bai eskabidean, bai dirulaguntza emateko erabakian, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartutako egikaritze-konpromisoak, bai eta bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta horiek ere onuraduntzat hartuko dira.

Inolaz ere ezingo dute Eskoriatzako Udalaren dirulaguntzarik jaso balore unibertsalen aurkako helburuak, onarpen sistema, funtzionamendua edo jarduteko modua dituzten pertsona edo erakundeek.

7.- DIRULAGUNTZA ESKATZEKO MODUA ETA EPEAK.

Eskaerak sinatuta, eredu normalizatuaren arabera eta dagokien dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira, modu presentzialean edo telematikoan.

Elkarteek eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dituzte Herritarren Atarian, beti erabilgarri dagoena, asteko 7 egunez 24 orduz.

Pertsona fisikoek eskaera presentziala ere egiteko aukera izango dute, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era Udalaren H@ZI zerbitzuan.

Eskaerak aurkezteko epea HILABETEKOA izango da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epe amaiera.

Eskatzaileek ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

1.- Dirulaguntza eskaera orria. Orrian bertan aitortu beharko dira honako hauek (onartu ezean, horiei buruzko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da):

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
- Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu badu, horri buruzko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da.
- Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.



- Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
- Ez duela 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotako debekurik.

2.- 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa bete beharko da, eta ondorioz, adin txikikoekin ekintzak edo jarduerak modu jarraian egiten dituztenek Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horrek gehienez 6 hilabeteko antzintasuna izan beharko du.

3.- Diruz laguntzea eskatzen den programa edo jarduera azaltzeko txostena eta jardueraren aurrekontu zehatza, gastuak eta diru sarrerak xehetasunez banakatuta. Diru sarreretan zehaztu behar da eskatzen den dirulaguntzaren zenbatekoa. Era berean, antolatzailearen ekarpena zehaztu beharko da, horrelakorik balego. **I eranskina**

Eskaera aurkezteak eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak osorik onartzea dakar.

8.- AKATSAK ZUZENTZEA ETA DOKUMENTAZIO OSAGARRIA.

Eskabideak edo horrekin aurkeztu beharreko dokumentuek akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunari, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluari jarraiki, hamar eguneko epea emango zaio antzemandako akatsak konpontzeko. Eta ohartaraziko zaio epea igarota horrelakorik egin gabe, eskariari uko egin diola ulertuko dela, Lege horretako 21. artikuluan aurreikusitako moduan.

Aurkeztutako eskaera egoki ebaluatu eta erabaki ahal izateko beharrezkotzat jotzen duen behar beste dokumentu eta informazio osagarri eskatu ahal izango die Udalak eskatzaileei.

9.- ESKAERAK TRAMITATZEKO ARDURA DUEN ADMINISTRAZIO ARLOA.

Eskaerak Kultura arloak tramitatuko ditu.

10.- ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK ETA BAREMOAK.

- Proiektuaren kalitatea eta bideragarritasuna 20 puntu.
- Kultura aniztasuna lantzea: 10 puntu.
- Genero ikuspegia lantzea: 10 puntu.
- Programaren ekarpena euskararen normalizazioan: 10 puntu.
- Kontsumo jasangarria bultzatzeko neurriak: 10 puntu.
- Proposatutako jardueraren antzekorik ez egotea (proposamen berriak): 10 puntu.
- Jardueraren iraupena eta maiztasuna: 10 puntu.
- Jarduera finantzatzeko finantza-baliabide propioak: 10 puntu.
- Jarduerak sortutako diru sarrerak: 10 puntu



11.- DIRULAGUNTZA KALKULATZEA.

Aurreko irizpideak kontuan izanik, dirulaguntza emateko proposamenean sartuko dira 30 puntuko edo gehiagoko balorazioa lortzen duten programak edo jarduerak.

Dirulaguntzak banatzeko sistema bat aplikatuko da, eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera. Horretarako, dirulaguntza modalitate honetarako aurreikusitako diru kopurua onartutako eskaeren puntu guztien baturarekin zatituko da. Ateratako emaitzak puntu baten balioa izango du, eta hori eskatzaile bakoitzak lortutako puntu kopuruengatik biderkatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa izango dugu.

12.- DIRUZ LAGUNGARRI IZAN DAITEZKEEN GASTU KONTZEPTUAK.

1. Diruz lagungarritzat joko dira programaren edo jardueraren izaerari erantzun eta dirulaguntzetarako deialdiaren urte barruan egindako gastuak.

2. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan:

2.a) Taldearen, elkartearen edo erakundearen barruko administrazio eta antolaketa gastuak.

2.b) Gastu oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko balioko faktura edo egiaztagiritzat jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez badituzte.

2.c) Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzuko gastuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago.

2.d) Material inbentariagarriak erosteko gastuak, hala nola karpak, mahaiak, aulkiak, itzalkinak edo antzerakoak.

13.- PROZEDURA ETA ERABAKIA.

Dirulaguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

Arloko teknikariak txostena eginda, Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzailean aztertuko da. Batzordeak dirulaguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari, dagokion erabakia har dezan.

Erabakia ahalik eta epe motzenean hartuko da, gehienez ere eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabetera. Onartu ez diren eskaerak ere epe horretan jakinaraziko dira.

14.- ONURADUNAREN BETE BEHARRAK.

Onuradunak honako bete behar hauek izango ditu:

a) Jarduera egitea edota dirulaguntza emateko arrazoi izan diren helburuak betetzea.

b) Eskoriatzako Udalean egiaztatzea bete direla dirulaguntza emateko eta erabiltzeko baldintzak, jarduerak eta helburuak.

c) Udalak derrigorrez egin beharreko egiaztatze jarduerak ez oztopatzea.



d) Eskoriatzako Udalarri jakinaraztea elkarteak diruz laguntzen den jarduerarako jasotako beste edozein dirulaguntza.

Jakinarazpen hori emandako dirulaguntzaren bigarren zatia eskatzerakoan egin beharko da.

e) Jasotako dirulaguntza zertan erabili den justifikatzeko dokumentuak gutxienez bost urtez gordetzea.

f) Behin Udalak jakinarazita dirulaguntza emango zaiola, informazioa ematerakoan, publizitatea edo propaganda egiterakoan zein diruz lagundutako jarduerak egiterakoan honako hauek bete beharko dira:

- Eskoriatzako Udalak lagundutakoa dela jaso beharko da.
- Euskara bakarrik erabiltzera joko da bai jardueretan bai komunikazioetan. Bi hizkuntza ofizialak erabiltzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna.
- 16 urtetik azpikoei zuzendutakoak (idazki, hitzaldi, eta abar), salbuespenak salbuespen, euskara hutsean izango dira.

g) Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legean ezarritako neurriak betez, edari alkoholduen eta tabakoaren publizitatea, sustapena, hornidura, salmenta eta kontsumoa mugatu beharko da, bereziki adingabeei zuzendutako jarduerak direnean.

h) Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23.3.c artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek hizkera ez-sexista erabili beharko dute aurkezten dituzten memoria, proiektu eta gainerako testuetan. Era berean, genero-estereotipoak errepikatzea saihestu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatu, egiten diren irudi, komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.

i) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea.

j) Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiokeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere.

Pertsona edo erakunde eskatzailea joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitezkeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala.

15.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA.

Emandako dirulaguntza bi epetan ordainduko da (lehenengo, % 60a, eta gero, % 40a).

% 60a hilabeteko epean ordainduko da Alkateak dirulaguntza ematea erabakitzen duen egunetik kontatzen hasita.

Dirulaguntzaren beste zatia jasotzeko (% 40a) ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira deialdiaren urteko azaroaren 13a 1a baino lehen:

1.- Diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren txostena **(II eranskina)**



- a) Memoria
- b) Egindako jardueraren edo proiektuaren balantze ekonomikoa.
- c) Egindako gastu eta diru sarreraren zerrenda zehatza.
- d) Hasieran aurkeztutako aurrekontuarekiko gertatutako aldaketen azalpena, hala badagokio, eta horiek justifikatzeko txostena.
- e) Helburu bererako eskatutako edo jasotako beste dirulaguntzen aitortpena

2.- Dokumentazio grafikoa (kartelak, liburuxkak, libretoak, banatutako idatzizko materiala, prentsa oharrak eta abar).

3.- Gastuen justifikazioa:

Jardueragatik egindako gastuen fakturak behar bezala beteta. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako dirulaguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NANA.

Dirulaguntzaren onuradunak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZa banakatua edo BEZa barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

Faktura sinplifikatuak: Emandako dirulaguntzaren egiaztagiri gisa onartuko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Zenbakituta egotea
- Hornitzailearen izena eta IFK/IFZ.
- Data jasota egotea.
- "BEZa barne" adierazpena onartuko da.

Txikizkako establezimenduetako, ostalaritzako, garraioako, aisialdiko eta bidesarietako hornidurak, gehienez ere 100 eurokoak (BEZa barne).

Salbuespen gisa, ordainketa epe bakarrean egin ahal izango da diruz lagundutako jarduera eginda baldin badago dirulaguntza ematerakoan eta eskatutako dokumentazioa aurkezten bada.

Eskatzaileak, justifikatutako arrazoirik gabe, ez baditu osorik edo zati batean betetzen programatutako jarduerak edo oinarri hauetan ezarritako betebeharrak, kobratzeke duen dirulaguntzaren zatia ez ordaintzea erabaki dezake Udalak, eta baita kobratutako guztia edo zati bat itzultzera derrigortzea ere.

Erabaki hori hartu aurretik entzunaldia eskainiko zaio interesdunari.

16.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN.



Emandako dirulaguntza ez da bateragarria izango helburu bererako Udalari eskatutako beste edozeinekin.

Oro har, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu aurrekontu-ekitaldi berean Udalak emandako dirulaguntza izendun baten onuradun diren elkarte edo erakundeek.

Hala ere, salbuespen gisa, erakunde horiek eskaera aurkeztu ahal izango dute eskaeraren xedea izaera bereziko edo aparteko ekitaldi edo jarduera bat antolatzea denean, eta dirulaguntza izendunaren bidez finantzatutako proiektu edo jardueratik desberdina denean.

Kasu horietan, Kultura, euskara, hezkuntza eta gazteria batzordeak baloratuko du eskaera onartzea eta, hala badagokio, deialdi honetan sartzea bidezkoa den ala ez, proposatutako jardueraren interes kulturala eta berezitasuna kontuan hartuta.

Eskaera onartzeak ez du inola ere dirulaguntza jasotzeko eskubiderik sortuko

Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

17.- DIRULAGUNTZA ALDATZEA.

Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen baldin badira edo helburu berarekin beste erakunde batzuk emandako dirulaguntzarik jasoz gero, horiek dirulaguntza emateko erabakia aldatzea ekar dezakete.

18.- DIRULAGUNTZA BERTAN BEHERA UZTEA EDO BALIOGABETZEA.

Dirulaguntza berraztertze eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoia izango da dirulaguntza jasotzea eskatutako baldintzak bete gabe.

19.- INTERPRETATZEA.

Oinarriak interpretatzerakoan eta garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzordeak erabakiko ditu

BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LOS PROGRAMAS Y ACTIVIDADES CULTURALES QUE SE DESARROLLARÁN EN ESKORIATZA.

PREÁMBULO

Con fecha 21 de diciembre de 2023 quedó aprobado el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza 2024-2027. En dicho Plan se recogen las diferentes líneas estratégicas, siendo la primera la denominada “dinamización cultural”.

La acción A de esta línea son las subvenciones para programas y actividades culturales que se desarrollen en Eskoriatza. El objetivo es ayudar económicamente a los programas y actividades culturales que se lleven a cabo durante el año en Eskoriatza para ofrecer en el municipio



actividades culturales de calidad y fomentar la participación y colaboración entre los ciudadanos y las asociaciones culturales.

1. OBJETO.

Es objeto de estas bases la regulación de la concesión de ayudas económicas, en régimen de concurrencia competitiva, destinadas a la organización de programas y actividades culturales durante el 2026 en Eskoriatza.

Dichos programas y/o actividades deberán de coincidir con los objetivos del área municipal de Cultura, concretamente con los siguientes:

- Apoyar, difundir y promocionar el tejido cultural del municipio.
- Apoyar, difundir y promocionar los programas y actividades orientadas a la creación, producción y difusión cultural.
- Apoyar, difundir y promocionar la participación juvenil mediante la organización de actividades dirigidas a los jóvenes.
- Apoyar, difundir y promocionar programas y/o actividades que sirvan para transmitir valores propios de la historia y la cultura vasca, especialmente la de Eskoriatza.
- Apoyar, difundir y promocionar programas y/o actividades realizadas en euskera o que sean para promocionar el uso del euskera.

2.- PROGRAMAS Y ACTIVIDADES NO SUBVENCIONABLES.

Quedan excluidas de esta convocatoria las siguientes actividades:

- a) Las que sean o puedan ser objeto de otra convocatoria municipal.
- b) Las que atenten contra los valores universales como la paz, la solidaridad, la igualdad de género, el respeto al medio ambiente, la interculturalidad, etc.
- c) Las actividades cerradas o que pretendan el disfrute exclusivo del colectivo solicitante, bien por que se lleven a cabo en sedes sociales o bien porque el horario en que se realicen sea horario habitual de trabajo.
- d) Las actividades cuyo ámbito de actuación sea sectorial o que no sean relevantes a nivel localidad.
- e) Las que persigan ánimo de lucro.

3.- ORGANISMO COMPETENTE.

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el alcalde (de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2 e de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local).

4.- RÉGIMEN JURÍDICO.



La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el/la beneficiario/a y la entidad otorgante se registrará por las presentes bases y demás normativas vigentes en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación:

Ordenanza General reguladora del régimen de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza. (BOG nº85 de 10 de mayo de 2021)

Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones públicas.

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado 18-11/2003)

Reglamento General de subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

5.- ASIGNACION ECONOMICA

La dotación presupuestaria del año 2026 es de 2.500 euros y la partida presupuestaria correspondiente incluida en el presupuesto municipal es la 0400.481.334.00.01

6. BENEFICIARIO/AS.

Podrán solicitar las subvenciones objeto de la presente convocatoria cualquier persona física o jurídica que además de cumplir los requisitos establecidos en el artículo 8 de la Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza, proyecte organizar un programa o actividad cultural en Eskoriatza durante el 2026.

6.1.- Entidades/asociaciones

a) Que la sede social se halle en Eskoriatza. Excepcionalmente podrán ser entidades que tienen la sede social fuera de Eskoriatza si a juicio de la Comisión de Cultura, euskera, juventud y educación desarrollan labores de reconocido y marcado carácter cultural y la actividad objeto de subvención se lleva a cabo en Eskoriatza.

b) Que puedan acreditar documentalmente hallarse al corriente de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social, a la fecha de la solicitud de la subvención.

6.2.- Colectivos de personas físicas:

Deberán ser mayores de edad y estar empadronadas en Eskoriatza. Excepcionalmente podrán ser personas que están empadronadas fuera de Eskoriatza si a juicio de la Comisión de Cultura y Deportes desarrollan labores de carácter cultural y la actividad objeto de subvención se lleva a cabo en Eskoriatza.

En el caso de ser agrupaciones de personas físicas será necesario indicar el nombre apellidos y DNI de las personas responsables.

Se deberá hacer constar expresamente, tanto en la solicitud como en la resolución de la concesión, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación o colectivo, así como el importe de la subvención a aplicar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de beneficiarios.



En ningún caso podrán recibir subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza las personas o entidades cuyos fines, sistema de admisión, funcionamiento, trayectoria o actuación sean contrarios a los valores universales.

7.- SOLICITUDES Y PLAZOS.

Las solicitudes, junto con la documentación correspondiente, podrán presentarse de forma presencial o telemática, firmadas y según modelo normalizado.

En el caso de asociaciones se deberán presentar de forma telemática en el Portal Ciudadano, disponible las 24 horas del día, 7 días a la semana.

En el caso de las personas físicas se pueden hacer de forma presencial de 9:00 a 13:30 horas, de lunes a viernes, en el Registro General del Ayuntamiento (H@ZI).

El plazo para presentar las solicitudes será de UN MES a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Si el último día del plazo fuese sábado o festivo, se prorrogará hasta el siguiente día hábil.

Las solicitudes deberán ir acompañadas de los siguientes documentos:

1.- Impreso de solicitud de subvención. En el impreso se hace una declaración expresa de los siguientes términos (en caso de no indicarlos, será necesario presentar el justificante que lo acredite):

- Estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social
- No hallarse incurso en ningún proceso de devolución económica ante la administración.
- No haber solicitado otra subvención para la misma actividad. En caso de haberla presentado, deberá presentar documentación específica al respecto.
- No haber recibido sanción administrativa o penal por discriminación sexual o por infringir la normativa vigente y aplicable en materia de igualdad entre hombres y mujeres.
- Que sus fines y objetivos no son contrarios al principio de igualdad entre mujeres y hombres.
- Que no está incurso en ninguna de las causas de prohibición de los artículos 13.2. y 13.3 de la Ley 38/2003.

2.- Se tendrá en cuenta lo dispuesto en la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral de la infancia y la adolescencia frente a la violencia, y en consecuencia, en las actividades que impliquen un contacto habitual con personas menores de edad, se deberá aportar certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales. Este certificado deberá tener una antigüedad máxima de 6 meses.

3.-**Memoria explicativa** del programa o actividad para la que se solicita la ayuda y presupuesto detallado de la actividad, con desglose pormenorizado de gastos e ingresos. En el apartado de ingresos se debe precisar el importe de subvención que se solicita. Asimismo, se debe especificar la aportación propia en caso de la hubiera. **Anexo I**

La presentación de la solicitud implica que la entidad o persona solicitante acepta íntegramente las condiciones establecidas en las presentes bases.

8.- SUBSANACION Y DOCUMENTACION COMPLEMENTARIA.



Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá al solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21 de ese mismo texto legal.

El Ayuntamiento podrá requerir a los solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada

9. UNIDAD ADMINISTRATIVA ENCARGA DE LA TRAMITACION DE LAS SOLICITUDES.

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Cultura.

10.-CRITERIOS Y BAREMOS DE EVALUACION DE SOLICITUDES.

- Calidad y viabilidad del proyecto para el que se solicita subvencion 20 puntos
- Se trabaja la diversidad cultural 10 puntos
- Se trabaja la perspectiva de género 10 puntos
- Aportación del programa en el proceso de normalización del euskera 10 puntos
- Medidas para promover consumo sostenible 10 puntos
- Inexistencia de actividades similares a las propuestas (propuestas innovadoras) 10 puntos
- Duración y periodicidad del proyecto 10 puntos
- Recursos financieros propios 10 puntos
- Ingresos generados por el proyecto 10 puntos

11.- CÁLCULO DE LA SUBVENCIÓN

Pasarán a formar parte de la propuesta de concesión de subvención, aquellos programas o actividades que, conforme a los criterios precedentes, obtengan una valoración igual o superior a 30 puntos.

Se aplicará un sistema de reparto subvencional en función de la puntuación obtenida por cada solicitante. Para ello se dividirá el importe previsto para esta modalidad de ayudas entre la suma total de puntos de las solicitudes admitidas. La cantidad resultante será el valor unitario del punto, que se multiplicará por el número de puntos obtenidos por cada solicitante para obtener la subvención correspondiente.

12. CONCEPTOS DE GASTOS SUBVENCIONABLES

1. Se consideran gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza del programa o actividad objeto de la subvención y se realicen dentro del año de la convocatoria de las ayudas.

2. No se admitirán como gastos subvencionables:

- 2.a) Costes internos de administración y organización propios de la agrupación, asociación o entidad.



2.b) Nota de gastos u otros documentos que no reúnan los requisitos reglamentariamente exigibles para ser considerados facturas o justificantes con validez legal.

2.c) Costes de comidas, cenas u otras propias de servicios de hostelería, salvo los originados con relación a las personas participantes de la actividad subvencionada, que deberán guardar, en todo caso, la oportuna proporcionalidad entre el gasto realizado y el objetivo perseguido.

2.d) Costes de compra de material inventariable, como carpas, mesas, sillas, sombrillas o similares.

13. PROCEDIMIENTO Y ACUERDO.

La subvenciones se concederán por concurrencia competitiva.

Emitido informe por parte de la técnico correspondiente, se estudiará en la comisión informativa de Cultura, euskera, juventud y educación y se elevará una propuesta de concesión de subvenciones al Alcalde para que ésta adopte la resolución oportuna.

